

# ATARIAN

MAIXA ZUGASTI

n a r r a t i b a

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

ATARIAN

n a r r a t i b a • 140

ere in

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2022ko apirilean*

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Aitor Arana

© Maixa Zugasti

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-813-3

L.G.: D 507-2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)   

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

[itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Maixa Zugasti

ATARIAN



erein

*Asierri*  
*Bizitzak laztan gaitzala zahartzaroan ere*

Gaua ez zegoen zerutik zintzilik;  
zornea bezala sortzen zen lurretik,  
ke kaltegarri baten moduan.

LUIS MATEO DIEZ, *La ruina del cielo*

Ez dut giltzarik behar  
errautsen gainean eraikitako etxe honetan sartzeko:  
hormen atzean uzkurtutako ahotsek  
ez didate sartzea galarazten,  
zaindari zekenen hilotz-zurruntasuna izan arren.  
Ez dut giltzarik behar  
errauts bihurtutako etxe honetan sartzeko.

1  
JUAN

Lo dago herria. Eliza atzeko mailadiak igo eta, ertz bakoitzean, zoko bakoitzeko iluntasunean niri so egon daitezkeen begiei adi ezkien plaza zeharkatu dudanean, lo dirudi herriak. Pausoak bizkortu ditut enbor zahar baten gerizpean bikote baten gorputz bakarra aieneka sumatzean. Ez naute ikusi. Geldoak dira nire pausoak azal azpitik oihuka ari den grina-emariaren ondoan. Kiosko zarpailduaren itzalean, gizon bat dago lurrean, zerraldo. Isilak dira nire pausoak erraietatik garrasika ari den edari-emariaren ondoan. Ez nau ikusi. Dokumentuz beteta daramadan maletatxo beltza lurrean utzi eta atsedean hartu behar dut tarteka. Badakit ingurunea adi-adi aztertzeko egiten dudan buruko mugimenduak ere norbaiten arreta erakar dezakeela. Usapal baten hegal-hotsa, plazako azken ezkiaren adarrean. Edonor egon daiteke esna, basatirik ankerrena edo haurrik otzanena, baina, itzalpetik inguruko leihoetara so egin dudanean, herriak lo dirudi.

—Nora zoaz, aitona? Noraaaa...? —Harrizko hormak ozta-ozta eutsi dio zutik egon ezin den mozkorrari; mundua balantzaka du inguruan.



Hau behintzat, ez da nitaz gogoratuko; ez da ezertaz oroituko. Hobe gaueko mamu isilen moduan jokatu.

—Nora hoa etxeratu beharreko orduan? —Haren hitzak ozenak dira nire bizkarrean.

Pausoa bizkortu beharko dut inor esnatu baino lehen.

—Gero, gazteei esango die; gazteak beti ordu txikitán, gazteak, mozkorrak... Nora hoa, aitonaa?

Kale Nagusiko ezkaratz baten itzalean, arnasa lasaitzen saiatu naiz. Ahots amorragarria ere amatatuz doa. Zutik irauñ ezin duten gauza bigunen munduan lokartuko zen. Nire begiek harriturik aztertu dute pareko erakusleihatik begira ari zaidan nire isla: aurpegia ezkaratzeko itzalpean gordeta, adinean gora eginagatik urrutira lerdena dirudien gizon bat dut aurrez aurre; beroki dotorea soinean eta larruzko maleta iluna eskuan. Ile zuri ugaria ondo orraztua. Negoziogizon itxura ukazina du, baina zertan ari da gerizpean? Ez dut haren begirada urdina ikusten. Farolaren argipera irten naiz; inork ez dezala pentsa ezkutaleku bila dabilen gaizkilea naizenik... Begirada oldarkorra jaurti eta zorrotz hitz egin nahi izan diot argizatutako gizonari. «Ez dituzu inoiz helburuak ahaztu behar; ez duzu beste aukerarik; aurrera jo beharrean zaude; ez dago ihesa beste irtenbiderik».

Ezkaratzeko itzalpera itzuli behar izan dut maletaren bila; baita kemena berreskuratzerá ere. Ederra da herria gauaren abaróan. Eskumuturreko urrezko ordularian, oraindik ez dira seiak. Ordu erdi luzea dut tren geltokirainoko bidea egiteko. Abuztu-amaieran hasi nintzen bide hau nire goizeko ohitura bihurtzen, nire gorputzak etorkizunean zain nuen ihesa ezagutu izan balu bezala; hilabete hasieran, ordu ezberdinetan egiten nuen, jendearen ohiturei adi, bakardade bila; eta, ondoren, hamabost egunetan ez naiz honaino gerturatu. Gaurdaino; nire buruan haziz joan diren kezka ganoragabekoek gauza larrien pisua hartu duten eguneraino.

Haatik, ez naiz beldur. Irudimenean, ametsetan, horrenbeste al-diz pausoz pauso egindako bide hau nirea da, ezaguna, ziurra eta badakit guztia ondo doala, ez dudala zertan kezkatu. Pauso ba-koitza hobe beharrez egindako mugimendu bilakatu da nire bi-zitzan. Eta aurrera egin behar; ez dugu besterik.

—Badakit zure eskuetan ondo egongo dela —esan zidan Ma-riak hari hauskor bihurtu zitzaizkion hitzak lotu ezinik.

—Ez horrelakorik esan... —erantzun nion ahapeka. Bene-be-netan ari nintzen: ni ez nintzen gauza haur hura zaintzeko, ama he-riotzaren atari ospelean jarri zuena.

—Aurrera egin behar duzu; ez dago besterik... —erantzun zi-dan larriturik, leihotik sartzen zen gaueko iluntasunean murgiltzen zen bitartean. Gau-mahaiko argia piztu behar izan nuen, haren es-kuek nire aurpegia aurki zezaten.

Eta medikuek espero ez bazuten ere, onik atera ziren biak ala biak. Nitaz fio ez zelako, agian, semeak behar zuen hatsa zelako, akaso, gorputz ahul hura suspertu egin zen. Eta urte ederrak igaro genituen harik eta Mikelek Donostiako etxea utzi eta ikasketak egi-tera Bilbora alde egin zuen arte. Orduan, tristeziak itzularazi zuen Maria muga ikusezin horretara, heriotzaren ate ilunaren orpora, be-rriro. Eta guztion begietara, bizitzak, beti bezala, aurrera egiten la-gundu baldin bazion ere, nik badakit aurrera jarraitu besterik ez zuela egin, landare baten moduan, arnasa hartu eta eguneroko ohi-turei jarraitu besterik egin behar ez duten itzalen moduan. Sutea gertatu zen arte. Ez zuen bere bizileku bilakatutako ohe beroan ha-rrapatu, ez zuen hil, baina garren gertutasunak, eta, batez ere, kea-ren belztasunak amets gaiztoen lurraldera eramán zuten.

Suteak ezabatu zuen lege-gizon moduan eraikitako nire ira-gana, bulegoko liburu eta paperetan ez ezik, ordenagailuan gor-detako guztia. Baita Mariaren poema liburu eta egunerokoak ere.

Mikel egun haietan etxean zen.

—Ezin dut ama horrela ikusi... —esan zidan telebistak argizaturiko egongelan, oheratu aurretik, bezperan. Adur gaiztoko hitzak. Mutu jarraitu nuen esker txarreko semearen aurrean, amaren bizitza bere eskuetan eduki zuen erditze-eguna oroitzuz.

—Horrela ezin da bizi... —Ez zizkidan amaren hitzak errepi-katu, atea itxi aurretik.

Maria. Duela minutu gutxi, kalera irten baino lehen, azken begiratu eman diot logelari: zurezko mahai argiaren gainean, ezkontzako zuri-beltzeko argazkitik begira sentitu dut Maria. Orduan, oraindik, haren irribarreak ezti bihur zezakeen ezkontza eguneko urduritasunak eragindakoa zirudien hoztasuna. Haatik, ulerkortasunaren lurraldea aldatuz joan zen: hasieran, irribarrea eta hitzak, gainezka; geroago, hitzak bakarrik; urte luzez, isiltasun hutsa. Eta jendea konturatzen hasi zelako, ez nuen maite etxetik irten zedin: neuk egiten nizkion erosketak, eta gonbidapenak eta bisitak mugatzean, itzaliz joan zen.

—Ulertu nahi nuke... —zioen hasieran, pentsakor, errealitateak gainezka eginda.

Horiexek izan ziren haren hitzak Mikelek etxetik alde egin zuenean eta hitz horiexen oihartzuna iritsi zait gaur ere gelako atea itxi dudanean. Badakit gogogabeki irauten zuela bizirik. Egia da tris-turaren putzu sakonetik so egiteko betazalak zabaltzeko ahalegina egiten zuela, baina nik ondo ezagutzen nuen eta badakit haren begi urdinek, mihise bihozberaz estali arren, ilun jarraitzen zutela ulertzeko ezintasunak sortutako akiduraren gerizpean.

Gaur, ezertxo ere ez zegoen bere lekutik kanpo gelako atea itxi dudanean; kaleko argi zuriaren pean, ohe gaineko artilezko tapakiak urrezko dirdiraz zipriztindu nahi zuen gela. Aurrez horrenbeste aldiz egindako ibilbideak ezabatu du tristura oro, ezaguna denak

eragindako segurtasunaren liluraren pean. Haatik, aurrez prestatutako asmoetan ez zegoen Ikatzen begirada. Zakur gogaikarria intzirika ari zen Angel Lizarralderen gelaren alboan, korridorearen hasieran. Larriminez harramazkatzen zuen atea eskuineko atzaparrez, eta, ordurako, egur ilunean, nabariak ziren zaurien arrakalak. Negar lantua indartzera zihoanean iritsi naiz haren albora eta atea ireki behar izan diot heriotza usaintzen duen arratoi-txakurrari, inor iratzar ez zezan, nire pausoak salatu ez ditzan.

Nire asmoetan ez zen Ikatz gaurdaino agertu, eta, gelako atea isil-isilik ixtearekin batera, haren marmar oldarkorra ilunpean sentitzean, izozturik geratu naiz. Nik gauzatutakoa ezagutuko balu bezala. Zaunka bakar bat nahikoa izango zen Kontxi agertzeko, eta ezin, ordea, laztanez eta hitz goxoez limurtu piztia, hitzez haraindi dagoen lurraldekoa baita. Agian, nire asmoak usaintzeko gai ere izango zen zakur malapartatuaren sena. Inoiz ez nau gogoko izan; inoiz ez da nigana gerturatu. Eta pozten naiz. Beldurgarriak dira lorik egiten ez duen zakurraren begiak, beti adi, beti zelatan. Haatik, banekien Angelen gelako atea ireki orduko lasaituko zela.

Eta arriskutsua izan arren, korridoreko argia piztu dut, nire begirada ikus zezan. Maleta eskuan hartu eta zuzen egin ditut haren gaineko pausoak, asaldatu gabe; beraren begiradari tinko eutsi, eta esan diot nik ere min handia egin diezaiokedala. Angel Lizarralderi bezala. Hitzik gabe. Begietara begira, mehatxu egin diot horrenbeste maite duen heriotzaren besoetara jaurti dezakedala esanaz. Hitzik gabe. Beraren etengabeko marmar amorragarria isildu besterik ez nuen egin nahi. Horregatik egin ditut ziurtasunez Angelen gelako aterainoko pausoak. Eutsi diot sarrailari, eta, orduan, zakurra niri hortzak erakustez ahaztu da; zutitu eta atea atzaparrez harramazkatu du berriro. Bizkarraldean, azazkal

grinatsuek egindako urraduren antza dute arrastoek, edo bortxa-keriaren geografiarena. Nitaz azkar ahaztu delako, ezustean heldu diot muturretik. Eta ez du intziririk egin. Atea ireki diot eta, barrura jaurti dudanean, ez dit zaunkarik egin. Bazuen hori baino eginkizun garrantzitsuagorik.

Zortea lagun izan dut gaur ere. Uste bezala, barruan isil-isilik geratu da Ikatz. Ondoren, guztia izan da errazagoa, bai bainekien Kontxi loak hartzen duela lanaldiaren azken orduetan. Bizpahiru gauetan aztertu ditut beraren mugimenduak eta gaur, sarrera ondoko besaulkian lo aurkitu dudanean, banekien nire pilulei esker zuela loa sakonagoa. Horregatik, lasai irten naiz kalera. Han, ate ondoko bi farolek ilargi betearen argi bikoiztua eskaintzen zioten gauari, errainu zuri zaintzailea, egun argitan ere ankerkeriarik larrienak gauzatzen direla jakitun izan arren.

Mozkor baten makakorroak entzuten dira. Ez nazala ikusi. Mugitu egin beharko dut. Zapa kaleko farolek sorturiko itzalean barna abiatu naiz. Ez dago inor plaza txikian; inor ere ez, Andre kalean. Atzean utzi dudan mozkorrarengandik ihes egin beharrak arintzen ditu nire pausoak Erdi Aroko harrizko irteera ilunera. Zapa kalea tunel iluna bihurtu da; amaiera, arnasa.

Garai bateko herriaren harrizko muga zeharkatu eta haren bizkarralde malkartsura irten naiz, Atzieta kalera. Zeru ilunean, Zikuñagako paper-fabrikaren kezko arrastoak hodei-itxura hartzen du bertakoa ez den edonorentzat, bailarako behe-argiari esker. Adarra mendiak lo dirau inork ikusi ezin duen unean, iluntasun bihurturik. Geroz eta bakanagoak dira hezurren oinazearen hizkuntza ulertu nahian, goizaldean, hara begira, gailurreko ekaitz, elur eta oskarbien zantzuak irakur ditzaketenak. Gurean, bai, gurean geratzen da artzainen hizkuntza ezezaguna ulertzen duenik.

Ordularian, seiak eta hamar. Mailadi zabalaren erdialdeko barandari eutsi eta eskuineko eskuan maleta dudala, poliki abiatu naiz beherantz. Itzalaren bila dabilen gaizkilea naiz.

Hots leun batek asaldatu nau. Pausoak gorantz datoz. Ezkutan, isil-gordean gerturatu nahi duten oinak arinak dirudite. Nire belarri finek irudimena astindu eta beldur ezkutua xaxatu nahi izan dute. Begiek ez didate erantzuten, aurpegia itxuraldatzeko betaurrekoak maletan gordeak baitituz. Nor ote behetik datorren irudi iluna? Udaltzaingoa ote? Oraindik ezin izan du hilketari buruz ezer jakin, ordea. Edonork eskain diezaioke maleta jaisteko laguntza ezinean doan agure isilari. Erantzuna prest dut, baina horrek ez nau ikusezin bihurtzen.

Honezkero irudi beltza konturatu da. Ezkerreko hormara jo du, baina ez du pausoa bizkortu. Maleta lurrean utzi dut une batez; hobe bi eskuak libre eduki. Emakume musulmanaren mugimenduek izua ezkutatu nahi dute hijab beltzaren azpian. Nire albotik igarotzean, aurpegia ere estali egin du eta ez dit begietara begiratu.

—As-salam-u-alaikum.

Ahapeka, azkar esandako hitzen ondoren, pauso bizkorrez egin du aurrera eta, apur bat aldentzean, atzera begiratu du. Mugimendu okerra. Ikatzek erraz usainduko luke izuaren aztarna, gau irekian ere, Angelen oinetan kiribilduta egongo ez balitz, haren esku hotza miazkatzen jarraituko ez balu. Berari begira ikusi naue-lako, arineketan doa emakumea. Igogailua ez hartzeko antzeko arrazoiak izan ditzakegula erabaki dut: tramankuluari dion izua, segurtasun-kamerari dion beldurra...

Seiak eta laurden: goizegi aukeran. Hautsitako hoditik irteten den ura zaratots izugarria da gauean, bideak bihurtzea egiten duen lekuan; ez dut jada emakumearen pauso-hotsik entzuten, ezta

nire bakardadea uxa dezakeen soinu sotilenik ere. Goiz da. Begiratoki zaharrean eseri naiz, baina ez dut, badaezpada ere, bizkarra burdinazko hesi zaharraren kontra jarri. Heriotzari baino eritasunari diodan beldurra agerrarazten duen mugimenduak oreka galarazi nahi izan didan arren, ez dut zalantzarik egin; ondotxo dakit zertan nabilen.

Duela zortzi urte, Tolosa hiribideko gure etxean sortutako suteari begira nire buruan trumilka hasi ziren galdera gorrotagarriek ere ez zidaten gau hartako loa eragotzi. Ondotxo nekien zertan nenbilen, orduan ere: aspaldidanik lotutako asmo eta erabakiak gauzatu nahi nituen, gaurkoen modukoak. Mariak, berriz, negarmalkotan begiraten zion zazpigarren solairuan desegiten ari zen bere bizitzari. Gau hartan, Ondarreta hotolean lo egin behar izan genuen. Goizaldean deitu nion Mikeli, sutearen berri ez ezik, amaren heriotzaren berri ere emateko. Bihotzekoa, esan zidan medikuak; gertaera larriek bihotz ahulean sor dezaketen danbada. Ez zuen ezer susmatu, hura iritsi aurretik, ondo gorde bainituen sendagai guztiak. Bihotz ahula ez da susmagarri gertatzen. Eta Mariak heriotza goxoa izan zuen, Angelek bezalakoa; ez zuen zirkinik egin gau osoan, ez ninduen iratzarri. Goizean, nire maitearen begirada izoztua nuen aldamenean, aspaldidanik bizitzak gailendu eta itzalitakoaren antzekoa, gaur bertan ezkontza eguneko argazkitik bota didana bezalakoa: hilotzarena.

Bilbotik laster batean itzuli zinen eta ez zenidan ezer galdetu, herritarren artean kiskalitako etxeari begira geunden bitartean.

—Gure bizitza... —Amaren hitzak errepikatu nituen.

—Gure bizitza... —Handik hiru egunetara ere, hitz berek agurtu zituzten haren errautsak.

Zilbor-hestearen lotura zenuten, patuarena. Banekien egun haietan ez zinela ezer esateko gauza, zure gotorlekua amarena

baitzen: isiltasuna. Horregatik, ezustean harrapatu ninduten handik egun batzuetara aurpegiratu zenizkidan arrangurazko hitzek. Orduan ez nizun aintzat hartu dolorezko doinu negargarria, bizia eta maitasunaren iturria amaitu baitzitzaizkizun; ez nizun kontuan hartu alargun geratu berria denari zor zaion bihozberatasunik agertu ez izana. Haatik, ez ditut inoiz ahantzi —ezta barkatu ere— zure ezusteko hitzak:

—Beti izan zuen zure azpijokoen berri. Urte hauetan guztietan, ama inozoa zelakoan egon zara, baina hark ere ondotxo zekien nor zuen alboan. Duela hilabete batzuk kontatu zidan guztia, azken urteetako egunerokoa oparitu zidanean.

Eta une hartan, suteak ez zuela dena deuseztatu esan zidateanean jakin nahi izan nuen zehazki zer ote zenekiten Mariak eta zuk. Horregatik sartu nintzen zure etxera, amak gordetako giltzaz atea ireki ondoren. Denbora asko igaro nuen bazter guztiak arakatzen, baina han ez zegoen egunerokoaren arrastorik. Ziur nago zerbaiten susmoak hartu zintuela, handik egun gutxitara sarraila aldatu baitzenuen. Eta geroztik, ez hitzik ezta salaketarik ere. Aitarik ez duen semea bihurtu nahi izan duzu. Eta horrek ziur sentiarazi nau: ez zara eraso egiten duen piztia amorratua; amaren modukoa zara, tristuran murgiltzen den koitadua.

Duela zortzi urte, nire iragana sutearen ondorengo errauts bihurtzean, aurrera egiteko gauza izan banintzen, gaur ere, ez dut zertan kezkatu, gertaera konponezin bakarrari ere, heriotzari, ez baitiot beldurrik. Ihesa besterik ez da; ez dut larritzeko arrazoirik.

Geltokian ez dago inor. Gau biluzia da, isila, farolen argi zurriak jantzi gura lukeena. Txartelak saltzeko leihatilak aspaldidanik dirau itxita; makinek duela asko ordezkatu zuten burua beste nonbait izaten zuen langile aspertua.



Geltokiko txokoan ezkutatu aurretik, azkar gerturatu naiz burdinazko zakarontzi gorrira. Itzalean dago, baina azkar ibili beharko dut badaezpada ere: maleta txikia irekita sartu dut zaborrontzian eta egoitzako botikinetik lapurtutako alkohola jaurti diot gainera. Ondoren, pospolo baten dirdira nahikoa izan da guztia sugarretan pizteko.

Urrundu eta makinaren eta hormaren arteko txokoan, ezkutatutik, trenbide-ertzeraino ditudan hamar pausoei begira geratu naiz. Irudimenean, horrenbeste aldiz, behin eta berriro egindako bidearen urratsek beren oinatzak utziko zituzten honezkero airezko bidean, nire oroimenean utzitako bera, behin betiko arrasto garbia. Nire oinek hamar minutu barru jarraituko diote lorratzari: hamar pauso eta bidaia; bizitza berria.

Hego-haizeak azkar barreiatu du paper-fabrikaren kiratsa gau epelean. Laster, larunbat goizeko mugimenduek marraztuko dute eguna. Nagore aurkituko dugu sarrerako mostradore atzean. Gaur ez da aspertuko: heriotzak berezko gelditasuna, larrimina eta tristura galdu egiten ditu gurean eta mugimendu azkarrek ordezkatzen dute, ezkutatu beharreko gertaeraren larritasunak. Iratik emango dio berria Angelen familiari, eta beilatokiko langileek azkar gauzatuko dute beren lana; agian, gosariak amaitu baino lehen, agureek heriotzaren berri izan baino lehen. Guztiak bat datoz: adurtxarreko autoa lehenbailehen desagerraraztea komeni izaten da.

Berandu ohartuko dira nire absentziak, gosaria bere horretan hoztuta aurkitu eta gelan aurkitzen ez nautenean. Honezkero, guztiek badute nire ohituren berri eta konturatu dira arauak hautsi arren, berandu agertzen naizela jangelara, otorduak bakarrik egitea maite dudala. Sarak jaso ohi du gure mahaia. Erraza da emakume bakartiari barre eginaraztea, berarekin berriketan aritzea gustuko dudala sinestaraztea. Sara ere berandu ohartuko da nire absentziak.

Bost minutu, hamar pauso.

Gelara joango dira nire bila eta txukun aurkituko dute: ohea eginda eta, mahai gaineko ezkontzako argazkiaren ondoan, nire es-  
kutitza, maitasun-eskutitz hunkigarria, emaztearen hutsunea gain-  
ditu ezin duen gizonarena. Eta dirua, Mikelentzat, urte hauetako  
isiltasuna eskertuz.

Hamar pauso, eta bidaia.

Bizitza berrira eramango nauen argiak hautsi du gaua. Azkar gerturatu da, denboraren eta espazioaren arau guztiak apurtuz. Klaxonaren hots ikaragarri eta amaigabeak atzerantz bultzatu nau. Trena geltokian dago nire zain, baina nire oinek zalantza egin dute. Karmen. Haren gorputzaren berotasuna; itxaropena. Gainera, ziurrenik, iraganean bezala, ez da inor ohartu Angelen heriotzaren atzean egon daitekeenaz; agure baten heriotza ez da kezkarria. Ozta-ozta iritsi naiz burdinazko eserleku gorrira. Arnasa. Arnasa da garrantzitsuena. Eta ke itogarri hau. Urduritasunaren urduritasunez, ez ote dit bihotzekoak emango. Arnasestuka lehortu dut bekokiko izerdia mukizapi zuriaz. Eskuko hezetasanak lagundu dit ilea txukuntzen eta orduan sentitu dut amets gaiztoetatik esnatzen nauen eskua. Maria. Gaur ere, patuaren nahia betetzeko asmoz, eskua luzatuz aldendu du tunel iluneko bidutzi oldarkorra. «Aurrera egin behar duzu; ez dago besterik...».

Pareko auzune berrian, geltoki ondoko etxean, argi bat piztu da. Urrunean galdu den trenaren burrunba ikaragarria da lo arina duenarentzat. Leihoko itzal ilunak niri begira dirudi: farolaren pean dagoen agureak zaugarria dirudi. Ziurrenik, ordea, suak asaldatu du. Gau ilunean, zaborrontzia itsasargi zoragarri bihurtu da, begien gidari: argi gorriak edonoren soa erakartzen du, agurea itzalean uzten duen bitartean. Zuzen eseri naiz, tente, eta erlojuari begiratu diot hurrengo trenaren zain dagoen edozein bidaiariren

moduan. Inguratzen nauen bakardade eta isiltasunak, ordea, agure ahul bilakatzen nau edonorentzat.

Altxatu eta ordutegiari begirada bat eman diot. Argia itzali egin da eta berriro eseri naiz. Ez dakit zenbat denbora igaro dudan horrela, nire erabakiarekin bizitza nire alde jarri dela sinetsi nahian. Konturatu naizenerako, bi gizon ere trenaren zain zeuden geltokian.

—Egun on! —Iratiren ahots leun ezagunak aurrea hartu dio Karabel kaleko tuneletik irten den emakumeari—. Zer zabilta zu hemen?

—Lorik egin ezin denean, hobe kalera irten —esan diot irribarretsu eta egoitzan inork ez duela ezertxo ere jakingo agindu dit.

—Eta ke hori? —galdegin dit zakarrontzitik irteten den laino beltzari begira.

—Kea?

—Bai, hor, zakarrontzi horretan... Iogogailua hartzen badugu? —Emakume urduriaren mugimenduak bi helburu beteko ditu: lanera garaiz iritsi eta jakin-mina ase.

Beirazko kaxan, biok jarri gara kanpora begira, suak duen erakarpena ekidin ezin eta trenbideko argi ederrari begira.

—Nork sortuko zuen? Zenbat jende, arretaren beharrean... Ezin dut sinetsi! Sugarren batek ihes eginez gero, herri osoa jar dezake arriskuan. Zerk bultzatu ote du horrelako zerbait gauzatzeraz? Arreta beharra... Mozkorren bat... Garai bateko kontua dirudi...

Haren hitzek gure kaxa bete dute noraezean dabiltzan txinparten moduan. Su-garretan erretzen ari diren dokumentuei begira gaude biok. Trumilka, sosegua hesia apurtuta, isiltasuna eta beira bortxatzen dituzten hitzak ez ditut entzun ere egiten, baina gaueko isiltasun barea desegin dute. Telefono-deiak atezuan ipini nau; dokumentu guztiak kiskaliak ote? Identifikatuko nauten

datuak desagertuak ote?... Eta otoitz egin dut; aspaldi ez bezala, erregu. Suaren jainkorik baldin bada, belauniko errezoan esandako nire barne hitzek gogaituko zuten, jainkoek isiltasuna maite baitute, ez dute hitzen beharrik gizonen pentsamenduak eta sentimenduak ezagutzeko.

—Ez dut uste kezkatu behar dugunik, Irati. Behintzat, zaborrontzi bati bakarrik eman diote su, eta ez du arriskurik sortuko; hego-haizea baretua da. Hobe badaezpada ere suhiltzaileei deitu... —Eskuan duen mugikorretik azkar egin du deia; izena eta NAN zenbakia eskatu dizkion bestaldeko ahotsak lasaiagoa dirudi. Guztiaz arduratuko direla agindu dio.

—Hauek mugitzerako, Hernani kiskalita! —bota du aire ilunera, igogailuko atea ireki orduko, bere larriminaz nire mugimenduak bizkortu eta astindu nahian.

Berriro arkupeetik igaro gara, baina Iratik Andre Kalean gora bideratu ditu pausoak. Lan nekeza da haren ibilera urduriarentzat nire ezintasunera egokitzea, eta, horregatik, bi pauso aurreratu ostean, nire albora itzuli da. Pausoa bizkortzen saiatzen naizen arren, antzinako denborak ilundutako galtzada harriztatuan, maiz egiten dut estropezu. Iratiren aurrean, lerden ageri nahi nuke, ordea, dotore, eta sarritan geratu egiten naiz: batzuetan, kale estuak gaurdaino mantendutako iraganeko arrastoei begira (pareko leiho zaharren gertutasunak jendearen bakardadea uxatzen du oraindik; udako egun sargorietan, eguzkiaren beroa), eta besteetan, Iratiri, sosegurik ezagutzen ez duen emakumeari, zerbait ederra esateko aitzakiaren pean.

—Hara, gure poeta...

Lortu dut emakumea apur bat lasaitzea eta badakit leihotik begira dagoen edonori besoz beso doan bikotearen zurrumurrua iritsiko zaiola.

—Zortzietarako iritsiko nintzela agindu nion Nagoreri —aitortu dit besotik eutsi eta nire makulu bihurtuz.

Lurrin gozoaren usainari egin diot irribarre, besoen gaztetasunari, gorputzaren gertutasunari. Gudarien plazara iristean, une labur batez, ordulariari begirada bat emateko aitzakia jarri eta atsedend hartu dut. Urrun geratu da tren-geltokiko sute txikia, iragan erraustua. Gau-giro bakartiak bidea amaigabe egin nahi liguke, udaletxeko arkupe nagusitik igaro garenean.

—Juan, galderatxo bat egin nahi nizuke... —bota dit tupustean.

—Zuk esango duzu...

—Esan didate abokatua zarela... —Aditza orainaldian ipintze hutsak unean bertan gaztetu nau; pozten naiz ihesa trenaren abailarekin urrunarazi izanaz.

Baietz erantzun diot, eta laguntzarik behar ote duen galdetu larritasuna begietan nabari duen bi haur txikien ama banandu berriari.

—Lan-kontuak... Berriro ere, aldi baterako kontratua amaituko zait eta aholkua eskatu nahi nizuke.

Urumea ikastetxera iristean, gertu sentitu dut bidearen amaiera eta espaloia ertzean dagoen hurriz txikiari begira geratu naiz kontu-kontari, bidea luzatu ezin eta denborari tiraka. Zuhaixa erakutsiz kontatu diot Ingalaterran XVII. mendean hurrizaren txardangoak lur azpiko urak aurkitzeko ez ezik hiltzaileak eta lapurrak erruduntzat jotzeko erabiltzen zituztela. Ez dut haren kezak uxatzerik lortu. Ur ezkutuen, hiltzaileen eta lapurren arteko loturaz hasi natzaio hizketan, Izpizua kalean gora datorren anbulantziak aho bete hortz utzi nauenean. Nire besotik ihes egin eta, betiko moduan, larritu egin da Irati:

—Zerbait gertatu ote da?

—Ez dakit; norbait gaixotuko zen... —erantzun diot hori gure eguneroko ogia dugula pentsatuz. Kezkak arrazoia ren galbahetik igarotzeko dudari joerari muzin egin diot ondoren eta ni neu ere larritasunaren putzura erori naiz: bizirik ote Angel...

Ehorzketa-autoak lasaitu nau.

—Zer gertatzen da? —galdetu dio Iratik aldarte iluna erakus-tera ohituta dagoen gizon gazteari.

—Bart gauean, gizon bat zendu da... —Erantzunaren zain geratu naiz neu ere.

—Begiratuko didazu, mesedez, nor den?

—Angel Lizarralde. —Orriei begira erantzun dio, laguntzaileek gorpua autora azkar sartzen duten bitartean—. Azkar ibiliko gara, lasai, inor gutxi iratzarri da oraindik...

—Eta anbulantzia?

—Egoitzara datorren beste agure bat: Leandro. Familiak larunbat goizean, oso goiz ekarri nahi zuen.

—Mesedez, hirugarren solairura... Igozailutik irten eta ate gorria zeharkatu besterik ez duzue —esan die Nagorek konorterik gabeko agure bat anbulantziatik ateratzen ari diren erizainei.

«Lasaitu behar duzu, Juan», esan diot neure buruari, inork entzun ezin dezakeen pentsamenduen hizkuntzan. Oraindik inor ez da ezertaz ohartu eta ez dirudi susmo arrastorik piztuko denik; beste agure bakarti baten heriotza, hori besterik ez da guztien begietara.

Nagorek Irati eta bioi bi hitzetan kontatu digu Leandroren istorioa. Nire laguntza beharko duen gizon ahulak bete du nire burua emakumeak beren lanetara jo dutenean.

Atarian, atzo ezagutu nituen neska eta haren ama Tatiana agertu dira. Mexikarra. Agian, haren laguntza beharko dudala bururatu zait, baina ez naiz gerturatu. Hari guztiak ondo lotu behar ditut lehenbizi.

Egoitza barrutik agurtu ditut buru-keinu batez. Neskaren begi beltz handietan, anbulantzia eta autoa besterik ez dira sartzen, makurtu eta Ikatz laztantzen duen bitartean. Oraindik ez daki niri begira marmarrean ari den zakurra adur beltzekoa dela, heriorenak direla haren begirada eta hatsa.